

Nafarrokaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko martxoaren 17a / VI. urtea / 170. zenbakia

1978. urtean sortu zuen Iruñeko Udalak Andraize, Txantrea auzoko emakumeen etengabeko eskaera aintzat hartuz. Ondoren, Familia Orientabide eta Sexu Heziketarako (COFES) zentroak sortu ziren Nafarroan, Nafarroako Gobernuaren menpe, eta Andraize ere 1989an Osasunbidearen sarean sartu zen. Aurki, Iruñea, Tutereta eta Lizarrako zentro hauetaz gain, Etxarri-Aranatzen eta Elizondon, baita Tafallan ere, zentro berriak zabalduko dituzte. Administrazioak, hala ere, ez du zentro hauekiko ardura handirik agertu, eta emakumeek hartu dute beren gain hauen garapena lortzeko ekimena. Askorentzat, egunero da martxoaren 8a.



Egunero martxoaren 8a

Desolazioa pantailan

Filme batean erabateko desolazioa ikusi dut eta orain arte amesgaiztoetan baino agertzen ez zitzaidan paisaia mentala guztiz erreala izan daitekeela ulertu dut. Desertua baino askoz ere gogorragoa da, basamortuan edertasuna nonnahi aurki baitaiteke, eguzki izpi batean, ihes egiten duen pizti baten gan edota nahita bilatutako barkadadean. Vitali Kanievskik deskribatzen duen gerra ondoko Siberian, berriz, ez dago edertasunik txikienerako tokirik; hala ere, mutil protagonistak ez du amore ematen. Ez dakit nolakoa izango den Daniel Kalparsoro donostiarren lehenengo luze-

metraia (aspalditik berandu iristen zaizkigu 40 Printzipaletan ez dauden filmeak, iristen baldin badira), baina kritikariek diotenez bortizkeria eta zibilizazio industrialaren arrastoak nagusi dira 'Salto al vacío' pelikulan. Odola litroka isuri arren, ez dut uste 'Una vida independiente'

Metropoli forala

FELIPE RIUS



bezain gogorra izango denik. Duela urte asko ohitu nintzen sexu eta biolentziaz beteriko sekuentziak ikusten, baina pertsonaien barne desolazioarekin ez naiz behin ere ohituko, ederki baitakit haiei gertatzen zaiena bihar nire arazoa izan daitekeela eta estutasun berbera da Sibe-

riako mutikoarena eta Exotika izeneko areto batean emakume eder biluziek inguratutako egonagatik bere fantasmak baztertu ezin dituen Haziendako funtzionarioarena. Inoiz ez naiz topatu nire bizimodua dirutan tasatu behar duen aseguru etxeko langile batekin edo filme pornoak sailkatzen dituen emakume batekin, baina Atom Egoyan zuzendariaren pertsonaiak hurbil sentitzen ditut, istorio errealek kontatzen ari zaizkit eta Kanievskik bezala desolazioa begien aurrean jartzen didate. Horregatik gustatzen zaizkit pelikula horiek, eta beharbada horregatik dituzte horren ikusle gutxi.

ERAKUSKETAK

Koldo Martinezen argazki erakusketa ikusgai dago Iruñeko Vienas kafetegian, Taconeran. 'Malay' izenburupean, Malaisiako bizitza dakarte bilduta argazkiok. «Eremu horretan zerua lur bihurtzen da, gaua egun, iluntasuna argi eta mundu horretan, gorputzean taiaturiko sinboloak, bidea argituko duten su tortxa bilakatzen dira».

Euskara betiko mintzoa izeneko erakusketa zabalduko da gaur, ostirala, Lizarran, Nafarroako Gobernuak antolatu duen ekitaldiaren bidez. Fray Diego Kultur Etxean egongo da martxoaren 25ra arte, eta bere helburua, gai berari buruz antolatu ziren aurreko biek zuten bera da: euskara nafar guztien ondare gisa aurkeztea. Erakusketa astelehenetik larunbata bitarte, 19etatik 21etara bisitatu ahal izango da.

Insektuek erakarrita' izeneko erakusketa zabaldu zen atzo, osteguna, Burlatako Kultur Etxean, Iber-Cajaren eta Aragoiko Elkarre Entomologikoaren laguntzaz. Erakusketa martxoaren 31ra arte ikusi ahal izango da.

IKASTAROAK

Dantza afro-karibearra ikasi daiteke orain Club Deportivo Navarra taldearekin, martxoaren 20tik aurrera, hain zuzen ere. Horretarako informazioa nahi duenak Jarauta, 78 kalera joatea besterik ez du, edo dei dezala 22 43 24-22 98 20 telefonoetara.

Telebisioa: hiru begiraldi' izeneko ikastaroa antolatu du IPES elkarteak Iruñean, Pello Lizarralde idazlearen gidaritzapean. Martxelo Otamendi EGUNKARIAKO zuzendaria eta ETBko aurkezlea ohia, Begoña del Teso telebisio kritikaria eta Nerea Azurmendi telebista kritikariak ariko dira solaskide.

BESTELAKOAK

Euskararen Astea ospatuko da asteburu honetan Zizur Nagusian, Korrika dela eta, beren moduz ospatzeko. Ez da lehendabiziko urtea, ohitura bihurtu baita dagoeneko hirian, eta aurten inoiz baino zabalagoa izango da egitaraua, atzodanik igandera bitarte zabalduko baita. Gaur, adibidez, korrika txikia izango da arratsaldeko 5.30etatik aurrera, udal-erretatik abiatuta, eta 18.00etan Popi eta Zarratrako pailazoak ariko dira Frontoian. Bihar gymnkana eta pilota partiduak izango dira, eta igandean, dianak, txistulariak, kale animazioa, herri bazkaria bertsolariarekin, eta, ondoren, Korrika.

NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN


Zeinek erosi ote?

Christie's etxeok ez zuten sinetsi ere egiten: Rolling Stones-eko abeslaria den Mik Jaggerren galtzontzi-loaren edo Van Gogh pintoreak erabiltzen zuen pintzel baten truke ordaintzen den dirutza ordaindu dutela ez dakit nongo herri baten hizkuntza arraroan idatzita dagoen liburu batengatik! Balio zuena baino 16 aldiz gehiago! 166.500 libra!

Bazekiten, bai, txoratu samarturik geundela hemen inguruan, baina ez zuten espero liburu batengatik —zaharra gainera, oso zaharra— hainbeste ordaintzeko prest geundenik. Bada, Nafarroako Gobernu eta guzti aritu zen, azken momentuan jakin bazuen ere —zer egunkari leitzen dituzte Nafarroako Gobernuan? Horra hor galdera—; baina, jakina, diruketa handia zen, eta ur handiegia halako arraintxoarendako.

Ez du axola Euskaltzaindiko liburuazaina den Jose Antonio Arana Martijak esaten baldin badu garrantzitsuagoa dela euskal liburutegi nazionala, liburu pribatu asko joaten direla atzerrira, interes faltarengatik; ez direla zaintzen hemen ditugun ondareak, ordaindu den dirutza horren truke ez dakit zenbat liburu berri atera litezkeela...


Horrek ez du axola. Axola duena da jakitea zeinek erosi duen. Zein zen telefonoz bestaldean zegoen pertsonaia misteriotsua, zeinek kendu zigun sudurraren paretik, zeinek eraman duen erbestera, ez ba-



du ezta ulertu ere egingo! Izorratzeko gogoak! Baliteke euskaldun bat izatea, Ameriketara eta barreiatuta dauden indiano guztiz ahaldun horie-

tako bat. Orduan aberriaren ongilea izango zen, gizon ondradu puska, Euskal Herriko seme kuttunaren titulua mereziko lukeena... Zein ote?

ASTEKO PERTSONAIK



Jorge Oteiza
Eskultorea



Txetxu Rojo
Entrenatzailea

Artista oriotarrak polemika piztu du berriro asteartean zenbait komunikabideri bidali zien eskutitzarekin. Altzuzako Fundazioa hilda zegoela eta hilobia utziko zuela zioen bertan «Nafarroari uzten diot nire emaztearen hilotza, neurea eta nire Fundazioarena, eraikin itsusi eta ilegalek kolpatu duten nire etxe putaren gaurko hilobian», Tolosan (Gipuzkoa) egin nahi zuen egitasmoarekin zeukan haserreazaldu ondoren. Ez da estraineko aldiz horrelakoak botatzen dituela, eta urteak joan urteak etorri, aiur biziko bizardun hau gero eta gutxiago ulertzen dugu. Jakinik fundazioari buruzko harremanak martxan daudela —motel ala bizi, hori beste kontu bat da— dena azkenean marmitzen ote den itzarotea baino ez dugu. Denen onerako.

Entrenatzaile bilbotarrak ez du zorte handirik izan gure artean. Txetxu Rojok Bigarren mailako taldeen artean esperientzia bazuela bagenekien —Galiziako Celta berak igo zuen eta berak indartu zuen Lehen Mailan—, eta toki guztietatik hautsita zegoen beste talde bat gora eramatera heldu zen Osasuna taldera. Ez da luze iraun, baina, emaitza kaskarrek ez baitute aitzakiarik onartzen Bigarren maila gogor honetan, eta kexu da orain Athleticen aurrelari fina izan zena: «nire ustez ez dute pazientziarik izan eta Bigarren maila honetan hori funtsezkoa da». Egia esanda, aldaketa asko egin zituen taldean, eta jokalaririk berri franko ekarri ere bai. Orain inork ez daki Osasunako hamaiakakoa zein den. Beharrezkoa ote zen?

AHAZTU GABE!

JAIALDIK



Euskalerrria Irratiak haurren jaialdia antolatu du biharko, hilak 18, Iruñeko Labrit Pilotalekuan. Arratsaldeko 5.30etan hasiko den jaialdia horretan Iruñerriko haur erta gaztetxo askok hartuko du parte: San Fermin Ikastolako kantariak, Paz de Zigandako dantzariak; Barañaingo musikariak, Burlatako Hilarion Eslabako bertsolariak eta Amaiur Udal Ikastolako kantariak. Ondoren Kiki Moko eta Koko pailazoak arituko dira: kantu, josteta, dantza, primeran pasatzeko modukoa. Hori guztia gainera, munduan den gizon indartsuenetakoak, hots, Iñaki Perurena harrijasotzaileak aurkeztuta. Benetan aukera polita Iruñerriko haur eta gaztetxo euskaldunentzako Euskalerrria Irratiak eskeini-ko duena. Salneurria 300 pezeta. Animo eta den denak bihar, larunbatez, Labrit pilotalekura. Irri egingen dugu, gero!

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Barañain



Barañainen Estitxu Arozenak izango du gazteen artean aukera gehien.

Bertsolarien finalaurrea

E.DIEZ DE ULTZURRUN / IRUÑEA

Martxoaren erdikaldean gabiltzan honetan ezin konta ahala ekitaldi burutzen ari dira euskal kulturari lotuta, eta, asteburu honetan gainezka eginen du horrek. Guk lerrootatik zenbait ideia eman nahi ditugu igandeari begira. Hasteko, ez da komenigarria izan lanur batean gau txori moduan ibiltzea, bertzenaz bestondoak harrapatuko zaitu eta trenpu txarrak Korrikan laster egiteko sasoi ona hankazgoratuko dizu. Beraz, egokiro hauta ezazu zeure kilometroa, eta, gogoan har, kilometroak joan, kilometroak etorri, lasterrean segitzen baldin baduzu, ez da izan maratoi erdia korritzeko gauza zarelakoz, baizik eta Iruñea bareneko kilometroak 300-400 metrokoak direlakoz. Ondoren, bermuta edan, ongi bazkaldu, neurrian, eta arratsaldeko 4.30etarako eraman zeure burua Barañaingo polikiroldegira, Nafarroako Bertsolari Txapelketaren Finalaurrea jokatu baita.

Hortaz, aurrean ere bertso lehiaketak Iruñerria bisita eginen digu eta barañaindarrek besoak zabalik dauzkate nafar bertsozale-letasunaren familiari ongi etorri eta aterpe beroa eskeintzeko. Gogotik ari dira lanean, eta, alde horretatik Haizea Elkartean ahalegina azpimarratuko dugu hala nola Ana Errondosoro euskara teknikariarena. Udalak dirulaguntza ederra emanen du gainera eta polita litzateke egina dagoen indar handi horri behar bezalako ordaina ematea.

Mikel Tabernaren esanetara zortzi bertsolari ariko dira: zahar eta gazte, baxenafar eta goinafar, gizonezko eta emakumezko. Zortzi lagun kantari eta Leitzako Saio Nagusian lauren-

dako baizik ez da tokia. Apustuak ere gurutatu dira azken egunotan, kinielak ikusi ditugu, baina zaila da erratea, zinez, nor jarraituko zaion txapela-bideari. Mendiburu eta Alkatendako finalak ez dira arrotz, ezta Lesakar koadrila gaztearendako ere. Azken hauek abantaila daukate, haien hizkera guztiz konprengarria izanen baita entzulearendako eta txalorik handienak, errazenak ere, behar bada, haiendako izanen dira.

Gazteen artean, Estitxu Arozena agertzen zaigu sendoen. Txapeldunordeak ikasi beharko du saioari eusten, baina, denetan hoberena da, dudarik gabe. Xabier Silveiraren eskutik etorriko zaizkigu atrebentziarik handienak eta zirikadarik gorrienak. Silveira gauza da aurrera segitzeko, baita Amaia Telletxea ere edo gainontzeko gazteak. Nerbioak alde batera utzi behar dituzte, eta hori zailagokoa da.

Helduen artean, Joxe Fermin Argiñarena errazkindarrari errepikatuko diogu. Iaz ez zuen txapelketan kantatu eta horrek, behar bada, kalte eginen zion Doneztebeko saioari begira. Hasieran pattal ikusi genuen. Kanporaketak aitzinera egin ahala orde, gero eta sendoago kantatu zuen, eta, goranzko bide horri eutsi ezker, Leitzan izanen da.

Hortaz, etziko saioa bukatuta, jakin ahal izanen dugu nor abiatuko zaigun Final handira, Artzallus, Manolo Arozena, Bittor Elizagoien eta Xalbadorekin batera aritzeko. Agian iazko finala errepikatuko da. Ikusiko. Bitartean, Barañaingo plaza egin behar da. Zenbaitendako ulergaitz juzkatu diote halako saio bat Iruñerrian egiteari. Iruñea eta inguruan badira bertsozaleak, hori bai, arras barreiatuta, euskaldu-

nak, oro har, sakabanatuta dabiltzan bezala. Ez da atzendu behar Iruñerrian bizi direla Nafarroako euskaldun gehien. Alde horretatik, bertsozale potentzial gehiago biltzen dituen eskualdea hori dugu, eta, Nafarroako bertsolarien Lagunak elkarte, buru belarri, ari da lanean bertsozale-tasuna errotzeko eta sustraitzeko, baita toki labaingarrietan ere.

Donibane Garazi

'Garazi Korrikarazi' euskararentzat

LUTXI FOURCADE / BAIONA

Astelehenero Donibane-Garazik giro berezia ezagutzen badu, merkatu eguna baita, ez da dudarik gaur ere Nafarroa Behereko hiri nagusiko karririk pil-pilean izanen ditugula. Hots, bi urtero Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak antolatzen duen ekitaldi erraldoia, Korrika, xoko xume horretarik abiatuko da 8etan.

Alta, badu jadanik aste bat pasa Korrikaren giroan bizi direla garaztarrak, AEK-k 'Garazi Korrikarazi' aste kulturala antolatu baitu. Mota guztietako publikoentzat hitzorduak finkatu zituen joan den ostiraletik eta ekitaldi guztiak franko ongi iragan direla adierazi digu Mirentxu Lakok, Korrikaz arduratzen denetarik batek.

Martxoaren 10ean antolatutako gau beilak eskualdeko zernahi jende bildu zuen Bakarria izeneko ostatuan. Antzerkiñoak aurkeztu zituzten bertako lagunak, aipatzeko euskaldun berri eta euskaldun zaharren arteko harremanak.

'Euskara nun erabil' gai az antolatutako solasaldia ere franko interesgarria izan zela zioen

Mirentxu Lako antolatzaileak, partehartzaileek argi eta garbi erakutsi baitute euskara jakitea bat dela baina erabiltzea beste gauza bat dela. Horren lekuko ekarri dituzte garaztar batzuk, euskaldun berri ala zahar, eta ondorekin, aztertzeke zer urrats emaiten ahal zen gauzak aldatzeko.

Ekitaldi jendetsuena Baigorri iragan da joan den asteartean, eskolètako 200 haur bildu baitziren Korrika Tipia egiteko. Denak elkarrekin bazkaldu ondoren eta txotxongilo emanaldia ikusi ondoren, autobusetan berriro igo dira eta ehun metro guztiz utzi dituzte klase guztiak ezker paretaraino. «Baigorriarrei eman genien lehen metroak kurritzeko eskubidea, nolaz ez, eta azken metroak egin zituzten Oztibarreko ikastolako ttipiek», adierazi zuen, azpimarratuz giro ezin beroagoa zela karriketean.

Usaian hunkitzen ez den publikoari ere filmeak euskaraz aurkeztea erabaki zuten, 'Amorru Haizea', 'Off-eko maitasuna' eta 'Anonimoa' eskainiz. Euskarazko laburmetraiak ere beste tokietan ikusgai ziren aste honetan hainbat zinemagelatan.

Altsasu

MARTA GURUZIAGA



Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmena

Altsasuko Udalak Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmena sinatu-zuen joan den asteazkenean, aurrerantzean zenbait kultur gai elkarlanean jorrazteko asmoarekin. Jose Manuel Goikoetxea alkateak eta Gregorio Monreal elkarteko lehendakariak sinatu zuten akordioa, eta hemendik aurrera elkarteak bere argitalpenen bilduma osoa eta argitaratuko diren liburu guztiak dohainik eskainiko dizkio Udalari. Halaber, elkarteak urtero ekitaldiak antolatzeko konpromezua hartu du.

COFES, mendialdean ere

EDURNE ELIZONDO / IRUÑA

Familia Orientabide eta Sexu Heziketarako Zentroak (COFES) Nafarroako emakume asko eta askoren etengabeko eta bizkor aldarrikapenaren emaitza izan dira. Egun, Iruñean, Tuteran, Lizarran eta, aurki, Elizondo eta Etxarri-Aranatz badiutze emakumeok COFES zentroak, baina orain hamazazpi urtekoek kalera ateratu behar izan zuten Iruñeko Udaltzari behin eta birritan eskatzeko beharrezko zerbiztu hori.

Iruñeko Txantrea auzoko emakumeek hartu zuten beren gain emakumearendako zaintza zerbitzua eskatzeko aldarrikapen hura. Eskatu eta eskatu, Udalak ezin izan zuten luzaroan entzuz egin eta, Txantrea bertan, Andraize sortu zuen, 1978an. Urte batzuk geroago, berriz, lehenengo COFES zentroak sortu ziren, Nafarroako Gobernuaren menpean.

Iruñean kokatu zuten bat (COFES-Iturrama) eta Tuteran bestea (COFES-Tutera). 1989. urtean, halaber, Andraize Iruñeko Udalaren arduratik at gelditu zen; COFES zentroak bezala, Nafarroako Gobernuaren sarean, Osasunbidearen barruan sartu zen, COFES-Andraize bihurtuz.

Iaz zentro berria zabaldu zuten

Txantrea auzoko emakumeen ekimenez sortu zen Andraize, emakumearen zaintzarako Nafarroako lehen zentroa.

Familia Orientabide eta Sexu Heziketarako (COFES) zentroak milaka eta milaka emakume nafarren topaleku dira urtero. Aurki, apirilaren hasieran, Etxarri-Aranatz eta Elizondoko zentro berriak jarriko dira martxan. Zentro berri hauek paratzea, hala ere, ez da erraza izan, Etxarri-Aranatz eta Elizondoren ordez Altsasun eta Donezteben jartzeko eskatu duten ahotsak ere entzun baitira. Nafarroako Gobernuak, ordea, ez da herri hauetan zentroa ezarri ahal izateko dirua emateko prest agertu.

Lizarran eta aurtan, halaber, Elizondo eta Etxarri-Aranatz zabalduko dute COFES zerbitzua, herri bakoitzeko Osasunetxean. Apiril aldera jarriko dituzte martxan. Tafallan ere, kokapen zehatza oraindik erabaki ez badute ere, COFES zentroa martxan jarriko dute denbora gutxi barru.

Egun dagoena lortu ahal izateko bidea, hala ere, luzea izan da eta emakume taldeek izan dute beti ekimena halako zentroak sortzeko. Pablo Sanchez Valverde COFES zentroetako koordinatzaileak, hain zuzen ere, emakume hauen guztien gogoia eta indarra azpimarratu du EGUNKARIAREKIN izandako solasaldian, «Nafarroako Gobernuak inoiz ez baitu zentro hauekiko ardura handirik agertu». Zentroak, hala ere, hor daude, «emakume hauen eta gure elkarlanean emaitza», hain zuzen ere. «UPN gobernuan dagoela ere, nahiz eta bitxia iruditu, haztea lortu dugu, alderdi honek ez baitu emakumearendako zaintzari buruzko politika zehatzik. Ema-

kumeek behin eta berriro eskatu ondoren, talde hauen presioaren aurrean amore eman behar izaten du, azkenik. PSOEren garaian, ordea, ez genuen ezertxo ere lortu». Gobernuaren borondatearen gainetik edo borondate ezaren gainetik, hobeto erranda, beraz, Nafarroako emakumeen ahotsa nagusitu da.

«Emakumeek behar dutena eskatu dute eta hori lortzeko borrokatu dira. Egun ere, borrokan jarraitzen dute eta gurekin batera emakumearendako zaintza programak egituratzen dituzte. Administrazioak eskaintzen duenarekin konformatu ez eta zehazki nahi dutena eskatzen dute emakumeok. Gu ere emakumeak dituen beharrak, benetako beharrak, asetzen saiatzen gara eta horretarako eurek diotena entzutea nahitaezkoa da», azaltzen du, argi eta garbi, Pablo Sanchez COFESeko koordinatzaileak.

«LANEAN JARRAITU BEHAR» Pablo Sanchez ginekologoa da eta Andraizeko zentroan hasi zen lanean, 1978an, bolondres gisa. 1989. urtean, berriz, Iturramako COFES zentrorira joan zen eta egun bertan ari da zentro guztietako koordinatzaile lanean. 1978ko garaia gogoratu eta kontratuarekin langile bakarra zegoela aipatzen du Sanchezek; «gainontzeko guz-

COFESek dituen baliabideak, beraz, hamazazpi urte hauetan nabarmen hobetu eta areagotu egin dira eta emakumeek, gazte eta helduek, badute bertan zer aurkitu. Gazteek, gehienbat, familia plangintza eta sexu heziketari buruzko informazioa bilatzen dute COFESen. Helduek, bestalde, azterketa ginekologikoa egitera edo haurdunaldia zia zaintzera hurbiltzen dira zentroetara. Eskaera, edozein modutan, handia da, eta askotan hilaibeteak egon behar izaten dute itxaroten. COFESeko koordinatzailearen iritziz, gero eta emakume gehiago josten du zentroetara, «bertan zerbitzu ona eta duina eskaintzen dugula ohartu baitira». Aurki zabalduko dituzten zentro berriek esker —Etxarri-Aranatzkoa eta Elizondokoak, hain zuzen ere—, Iruñeko zentruetara joaten diren emakumeen kopurua gutxitu nahi dute COFESeko arduradunek, eskaria zentro guztietan zehar banatuz. «Gero eta zerbitzu gehiago eskaini, hala ere, eta es-

Datuek azaltzen duteenez, jendeak asko josten du zentro hauetara Nafarroa osoan, baina gobernuak ez omen du eskaintza zabalteko inolako asmorik. Bilanpostu desagertu dira azken urte honetan eta oraindik ez dira ordezkoak paratu. OSKAR MONTERO

kaera gero eta handiagoa da», aipatzen du Sanchez Valverdek. Baskotomiaren kasuan, izan ere, «nahiz eta ebakuntza gehiago egiteko aukera zabaldu, zain daudenen zerrenda ez da inolaz ere gutxitzen». Baskotomia egiteko aukera ere eskaintzen du COFESek, beraz.

Familia plangintza, sexu heziketa, azterketa ginekologikoa, haurdunaldiaren jarraipena, menopausiari buruzko informazioa eta beste hainbeste zerbitzu eskaintzen dizkiete COFES zentroek Nafarroako emakumei. Pablo Sanchezek, hain zuzen ere, Nafarroako emakumearendako zaintzari dagokionez, maila oso ona duela nabarmentzen du. «Baliabideak eta programak onak dira eta biztanle kopurua araberak, inon baino zentro gehiago dago Nafarroan».

Egoera, ordea, asko eta asko hobetu daitekeela ezin uka daiteke Pablo Sanchezen arabera.



Pablo Sanchez Valverde, COFES zentruetako koordinatzailea.

OSKAR MONTERO.

COFES (Familia Orientabidearako Zentroa)				
Hiruhile				
1994. urtea	1.Hiruhilekoa	2.Hiruhilekoa	4.Hiruhilekoa	Guztira
1. bisita ginekologikoa	2.042	1.201	1.608	6.617
Hurrengo bisita ginekologikoa	4.583	3.470	4.098	16.997
Hezkuntza kontsultak	761	423	492	2.307
Interbentzio kirurgikoak	176	65	138	575
Onarpenerako kontsultak	4.628	7.634	12.394	29.166

Gobernuak ez du zentroekiko inolako ardurarik agertu, borondaterik eza ikaragarria da».

E.E. / IRUÑA

Elizondon eta Etxarri-Aranatz, beraz, aurki —apirilaren hasieratik aurrera zurrerik— COFES zentro berriak jarriko dituzte martxan. Hobeki erranda, emakumearendako zaintza zerbitzua jarriko dute martxan, bertako Osasunetxean. COFES zentro propioa paratu ahal izateko, 40 milioiko inbertsioa egin behar zen eta UPN eta PSOE al-

«Dirurik ez»

derdiak ez dira diru hori halako zentro batean gastatzeko prest agertu.

«Hasiera batean, Altsasun eta Donezteben zentro berriak jarritza zen gure asmoa, baina Nafarroako Gobernuak bakoitzean 40 milioiko inbertsioa egin nahi ez duenez, ezinezkoa da», azaltzen du Pablo Sanchez koordinatzaileak. Erabaki honek, ordea, arazo eta polemika ugari sortu ditu Donezteben eta Altsasun, bertako hainbat taldek zentro herri horietan jartzeko eskatu baitzuten.


Pablo Sanchezek, aldiz, ez du arazorik ikusten, «zoritxarrez, dirurik gabe ezin baita beste gauzarik egin eta Elizondoko eta Etxarri-Aranatzko osasunetxeetan bakarrik baitzegoen zerbitzua jartzeko lekua. Altsasun eta Donezteben, zentro berriak gabe, guztiz ezinezkoa zen».

Herrien gainetik, gainera, zonalde bakoitzaren interesa da garrantzitsua Sanchezentzat, Etxarri-Aranatz eta Elizondoko osasunetxeetan bazegoen kontsulta berriak jartzeko lekua, ez ordea Nafarroako zonalde guztietako beharrak asetzeko adina zentro egingo dela uste du COFESeko koordinatzaileak.

Elizondo eta Donezteberen arteko eztabaidari dagokionez, bigarren herri hau inguruko herrien erdigunea dela eta geografikoki aukera hobea dela onartu egingo du Sanchezek, baina, erran bezala, dirua da arazoa. Iruñea eta Elizondo aukeran

emandak, gainera, inguruko biztanleentzat Elizondo hobea dela azpimarratzen du Sanchezek. Malerreko Behinpin taldeak, ordea, Doneztebeko aukera defenditzen du, elkarte honetako kideen arabera «egokiagoa» baita. Behinpin elkarteok dioteenez, gainera, bertako emakumeek kontsulta pribatuera joan behar dute askotan; ondorioz, «legeak nafar guztiei aitortzen dien berdintasun eskubidea inolaz ere ez da betetzen». Behinpin-neko kideek, hala ere, behingoz zerbait lortu dela aitortzen dute, Donezteben ez bada Elizondon jarriko baitute zentroa. Baina beti bezala, «hainbeste mugitu eta borrokatu ondoren, guri, ez digute kasurik ere egin».

Altsasuko taldeek, COFES zentroa Etxarri-Aranatz jartzea onartu zuten azkenik, eta Donezteben ere berdin egin behar dute, beti bezala, dirua baita agintari eta dirurik gabe ezin baita ezer egin. Etxarri-Aranatz eta Elizondoko osasunetxeetan bazegoen kontsulta berriak jartzeko lekua, ez ordea Nafarroako zonalde guztietako beharrak asetzeko adina zentro egingo dela uste du COFESeko koordinatzaileak.



Zestoako erromantzea

Galdera: Sendagile jauna. Jeneralean ez dut zure zutabea irakurtzen, txotxakeriak aditzea ez baitzait bati gustatzen, eta are gutxiago irakurtzea. Zainak ematen dit berandu baino lehen egurturen bat jasoko duzula. Nik nere amodioaren harimutur guztiak kontrolpean dauzkat. Zure beharra, zorlonez, ez daukat, beraz. Hala ere igortzen dizut Zestoan aditutako erromantze bat, amodio aferetan mingaina oso askea zuen emakume bati, ahal bazenu argitaratzeko. Ez dakit ezaguna den, nik behinik behin ez dut inon irakurri. Besterik gabe, honata-harata, aintzina-gibelat dabilen horri.

Erantzuna: Gustoraren gustora argitara ematen dut zuk bidalitako erromantzea, bere hola, hitzez hitz emanez.

Behin batean abiatu nintzan dama gazte bat topatzen, atian kax kax jo nion eta, ez zidan erresponditzen.

Dama gaztia leihuan dago galaiatz nahi zenduke? Nere gustua zuria balitz, biok lo egingo genduke.

Ateak ere kirri eta karra, txakurak ere zaunkatu, atearena erreza dago, txakurra ogiaz ixildu.

Eper bizia harrapatzeko mutil maltzua zera zu.

(Zestoan, 1935 urte inguruan aditua)

Galdera: Antzina-antzina-koa izan gabe, badago pasadizu bat gogoan gordetzeko dena, betiko. Alli eta Jaimeren arteko hizketa maieutiko hori. «Despota ilustratua». «Hobe ilustratua, despota hutsa baino». Nafarroak aspalditik izan duen lehendabiziko gobernaburu ilustratuak pot egin du, ez ideologikoki, bere partidukoek segitzen baitute, baizik kulturalki esango nuke nik, ez ilustratuak sartzekoak baitira. Pio Barojak esana da naparra eta kulturazale pertsona berean ezin-ezina dela. Zergatik ote gara naparrak hain emanak kultur-ezera?

Erantzuna: Komunista-ehiztaria zen McCarthy



Kultura, berez, orden-eza da, gureak eta bost kolokan jartzen dituen iharduera.

jaun iparrameriketarrak Hammett idazleari galdetu zion: 'Zu nire lekuan bazina, onartuko al zenituzke zure liburuak liburutegi publikoetan?' Eta Hammettek, McCarthyren barrenak ederki ezagutuz, erantzun zion: 'Ni zu baintz, ez nituzke ezta liburutegiak ere onartuko'.

Politika pertsonak eta mundua zuzen-zuzen jartzeko iharduera da, auruen arabera. Kultura, berez, orden-eza da, gureak eta bost kolokan jartzen dituen iharduera. Aristotelesek gizona animalia politikoa zela esatean, napar bat zuen gogoan. Naparra politikari puxka galanta da. Mugak



Pamielak argitaratutako 'Caines navarros' liburuaren ilustrazioa.

Naparra politikari puxka galanta da. Mugak nonahi, ordenaren bila, Kaosaren kontra.

nonnahi, ordenaren bila, Kaosaren kontra. Ez du etxea txukuntzen, baizik eta 'limpiar hasta el extremo o extremar'. Kaosak Artearen erresuma ez du gogoko. Onartzen duen desorden bakarra ardoarena da.

Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

Buhame hezurak

Francisque Michelek 107 eletako zerrenda ondu zuen 1857. urtean Iparraldeko ijitoen euskaratik jalgia



Buhame hezurak hezur beltzak dio herri esaera zaharrak. Honelaxe laburbil liteke ijitoak gurean zertan diren. Buhamiak, ijitoak, kaskarotak, agotak..., zenbat deitura arraza madarikatuak izendatzeko. Euskaldunen alkartasuna nazioartekoa ez arrazista nork aldarrikatu ote? Kalean uso etxean otso. Eta nolatan honat agertaraztea, literatur klasiko arront bitxi zoko bazter galdu honetar? Izan ere ijitoek ere haren euskara rom edo erremaitzela egin baitzuten, bati baino gehiagori arraro samar jazo arren.

Orai zemat uda, Bitoxako besta nagusi ezagunetan bertako erraldoi bereziak ikusteko parada izan genuen. Lemiziko laurak, zaharrenak direnak nonbait, patata ereile iduri klasikoa eskeingai, azkeneko laurak berriz, Fournierren erret hamabiko desitxurosoen miraila genituen asaldagai. Haren eramaileen gainean pasadizoak aditzeko ere aukera ezin hobea izan genduen. Pasadizo arras interesgarriak bestalde, oraiko gazte mukizu waltzari (balts dantzari naski) orekagabeak ez baitira duela guti artioko zauden Azpeitiko ijitoak. Eta norberak bereak atera ditzala.

Gaiteroak, ia Euskal Herri osoan bezala, bi taldetan banaturik (eta gaitero gehienak arrak izanik, egokia ote artaldeak deitzea? hala beeedi), lehengo gora beherak kontu kontari, Azpeitiko ijito euskaldunak Bitoxako erraldoiak pasiatzerat eramaten zituenengoak. Orduan ziren festak, sekula ez bezalakoak. Haiek sortu majia aztigarrira, haiek egin bira amaigabeak, gonak aidean, oinak arin, atsedenaldietan beldurgarriak, haien bizar egin gabeekin, haien larru beltzekin... Gaitajole batek bere muturpita hornitzeko nabalaren bat ozenki eskatu orduko, konpadre batek bere gerri azpitik atera egin zuena lau ahurretik gorakoa bazen. Horiexek bai zirela harridura aurpegi izikorrak gero. **To ene txuria, mangatzia alena, eta najin ezak baztando, mola piautu behar diau ta** (Tori nere labana, eskale hori, eta bukatu ezak aguro, ardoa edan behar diagu eta). Estonatze-koa.

Ez egun ez nihoiz ez da libururik ez arrasto izkiraturik haien mintzairaz egina. Ez da harritzekoa baina. Non utziak dituzte bestenak? Zein hizkuntzaz? Ijitoen kultura ahozkoa da oro har. Baina ahozkoa den literatura ere egon badago. Hailere, haien euskaraz eginiko zerbait

begiztatzeko aukera izanen bage-nu, ezer gutxi konprenituko genduke, batik bat euskara erremaitzelak, beste rom hizkuntza guzietan bezala romaniren arrasto nabarmenak baititu.

Hiztegi laburrak, dena den, baditugu euskalki berezi honen ulertu ahal izateko, neurri batean soilik izanda ere. Francisque Michelek 107 eletako zerrenda ondu zuen 1857. urtean Iparraldeko ijitoen euskaratik jalgia. Zenbait urte beranduxeago, 1862an espreski, Baudrimont izenekoak 245 hitz jasotzen du Amikuzeko Uhartan. Bilketa honen emaitza Bordelen argitaratzen da izenburu honen azpian: *Vocabulaire de la langue des Bohemiens habitant de Pays Basque Français*.

Daranatzek ere, bere *Curiosités du Pays Basque* liburuan 209 hitzetako bilduma txipi eta bi esaldi badakartza: **Txaia, brastando keuzak, bluiak jabela** (Mutiko, laster korri ezazu, jendarmak datozela) eta **Mandrana eta barrabas sar dazkidala tripatik nik ebatsi badut balitxo** (Ogia eta ardoa zula diezadten sabela nik lapurtu badut txerria).

Ijitoek utzi aztarnak urri badira, ez da gauza bera hagitzen euskaldunek ijitoez dihardutenean: **Buhamiek badakite trikun trakun egiten/ trikun trakun egin eta oiloak ebasten/ oiloak ebasten ta galtzarpean gordetzen/ buhamiek erosi du lau sosetan ogia/ lagunari saldu dio sei sosetan erdia**.

Gorago aipatu Francisque Michel berak idatzirik *Histoire des races maudites de la France et de l'Espagne*, 1847. urtean Parisen agerturiko liburuan honako kanta hau jasotzen da, gaurkoari arras ongi amaiera ematen fiona: *Jentetan den ederrena omen duzu agotal bilo hori, larru zuri eta begi nabarra nik ikusi artzainetan zu zira ederrren/ eder izateko amens agot izan behar da?*

Soizu nuntik ezagutzen den zoin den agotal lehen sua egiten zaito hari-beharrialal bata handiagoo dizu eta aldiz bestial biribil eta orotarik biloz inguratia./ Hori hala balinbada, haietari ez zire zure beharriak algar urdiri diral/ agot denak txipiago badu beharri batal aitari erranen diot biak berdin tuzula./ Agot denak buria apal eta dizu begial lurrian beti sarturik gaizki eginak bezala/ izan banintz ni aberats zu ziraden bezala/ aitak etzeizun erranen ni agobat nizala.



■ Iruñeko Hiria Xake Torneo itxiko 7. ihardunaldiko partida, 1995eko urtarrilaren 3ean jokatu.

Alexander Morozovitz, 2.575 ELOkoa (Errusia)-Victor Kortxnoi, 2.615 ELOkoa (Suitza). 1.e4.e6; 2.d3.d5; 3.Zd2.Zc6; 4.gZ-f3.Zf6; 5.c3.e5; 6.b4.a6; 7.a3.Ae7; 8.Ae2,0-0; 9.0-0.Ge8; 10.Ge1.Af8; 11.Af1.Ag4; 12.Ab2.d4. Alfilarren bidea itxi asmoz eginda, zulo handiak sortuko dizkie beltzei jokaldi honek. 13.Dc2.c3; 14.Ac3.Ad6; 15.h3.Ah5; 16.Db2.Zd7; 17.a4.a5. Zuloak azalaraziko dira jokaldi honen ondoren. 18.a5.Za5; 19.d4.d4; 20.Zd4.Ae5; 21.Aa5.Ga5; 22.Zc4.Df6. Ikus koadroa. Arriskua sortu nahian, beltzek lehenengo okerra egin dute: peoi bat galdu. 23.Ze5.aG-e5; 24.Db7.Zc5; 25.Dc6. Alfilarren posizio txarrak mugatzen ditu beltzak.

Damak aldatuz gero, txurien alfila urrezkoa bihurtuko litzateke, a4-ko peoia laguntzeko.

25...Db8; 26.Zb5.Ze6; 27.aG-c1.f5. Bigarren okerra: galbidean jarritako bigarren peoia. 28.f5.Zd4; 29.Dc3.c5; 30.Ge5.Ge5; 31.g4.Af7; 32.Zd4.d4; 33.Dc8.Ge8; 34.Db8.Gd8; 35.a5.g5; 36.Ad3.Ad5; 37.a6.Eg7; 38.Gc7 xa.Ef6; 39.Ef1.Gb8; 40.Gd7.Af3; 41.Gd4.Gb2; 42.Ae4. Garaipenezko amaierara iristeko estrategia ongi zehaztuta dago. 42...Ae2 xa; 43.Eg2.Aa6; 44.Gd6 xa.Ee5; 45.Ge6 xa.Ed4; 46.f6.Gb8; 47.f7.Gf8; 48.Ga6.Ee4; 49.Gf6.Ee5; 50.Gf5 xa.Ee6; 51.Gg5.Gf7; 52.Eg3.Ga7; 53.Gf5.Gg7; 54.Ef4.Gg6; 55.h4.Ee7; 56.g5.Ga6; 57.Eg4.Gb6; 58.Eh5.Gb4; 59.Gf6.Ee8; 60.f4. Beltzek etsi zuten. Ez dago alferrik oparirik egiterik.





Taldea Zudairin egin zen elkartaren aurkezpenan. Egun 50 batek —gehienak bertakoak— osatzen dute.

EGIN

A.BARANDIARAN / IRUNEA

Aranzadua izeneko ikerketa taldea osatu berri da Ameskoan, inguru honetako kultura berri eta biltzeko. Izena hartu diote bertako aztarna arkeologikorik zaharrenari, izen bereko dermioan aurkitu baitzen duela hogeita bost urte. Orain, ibarreko artxibo bibliografikoa osatzen ari dira eta, besteak beste, Ameskoako belarren katalogoa, hiztegia eta inkesta etnografikoa prestatzen ari dira.

«Ameskoarrak gara»

kontzejuak. Aspaldiko Ameskoa gaur egungo Ameskoabarren da, hain zuzen ere. Ameskoagoien Arana deitua izan zen XVI. mendera arte, eta mugetako borroken inguruan arabarren menpe egon zen zenbaitetan. 1846. urtean gaur egungo hiru udaletan banatu zen.

Ameskoabarrenen fundatu zuen Antso Azkarrak 1201. urtean Inzura izeneko herria, Logroñoko forua emana, baina ez zuen aurrera egin. Bi alderdien arteko harremana ere aspalditik dator, 1411. urtean Mugetako

basoaren aprobetxamendua jaso baitzuten. Guda karlisten garaian Zumalakarregi jeneralaren gordeleku izan zen Ameskoa, eta horri buruzko historia eta pasadizo franko daude inguruan. Egun, ekonomikoki Estellerrira begira dago Ameskoa, eta artzaintzak oraindik garrantzi handia du. Franko dira, hala, Urbasan bordak dituzten artzainak, Sakanakoekin batera. Nekazaritza apenas den inguruan, eta industria ere gutxi. Hori dela eta, gazte gehienek kanpora atera behar dute lan bila.

Inguru honen guztiaren ondarsuna berreskuratu edo gogortzeko lehen bilerak 1993ko abendukoak izan ziren, Balbino Garcia de Albizu 'Ameskoarrei buruzko gezur eta egiak' izena zuen mintzaldi baten ondotik. Orduan egin zen bileran azpimarratu zen bertako gaiak ezagutzeko jakinmina eta lankidetzarako gogo handia bazela, baina elkarlana eskasa zela. Beraz, antolatzea zen eman beharreko hurrengo pausoa. Hala, antola-

keta lanerako oinarrizko zenbait ideia finkatu beharra zegoen. Hortik sortu zen 'Kredo'. Hor zehazten dira taldea osatzeko arazoak, eta, besteak beste, azpimarratzen da Ameskoako ondare kulturalak azan duen hondatzea. «Ekimen indibidualak ez dira amaitezinak, are gutxiago gizartearen babesa ez badute. Herriaren kulturaren alde bakkarririk beren borondate eta ahaleginarekin lan egin dutenei egin ahal diegun omenaldirik onena da beren bideari jarraipena ematea». Hori ere gogoratu du Xa-

bier Garcia de Eulate taldeko partaideak. «Bere bizitza osoa haranaren alde lanean eman duen bati plaka bat emanez eskertzea hipokrita dela iruditzen zaigu, oso eroso. Pentsatu genuen, beraz, haiek utzitako materiala abiapuntu ona zela lanean has-teko, eta bildu eta horretan hasi ginen».

Taldea hainbat arlotan banatu da —Historiaurrea, Historia, Etnografia eta Natura—, eta lehen zeregin haraneko artxibo bibliografikoa egitea izan da. Gaur egun, taldeko partaideak biltzen ari dira hainbat argitalpenetan Ameskoari buruz dagoen informazio guztia, inguruko berriei buruzko fondoa egiteko. Bestalde, Barandiaranen inkestan jasotako erantzunetatik osatu nahi da Ameskoako hiztegi txikia. Halaber, haraneko ikasleen artean banatzeko inkesta txiki bat prestatu nahi da, ondoren etxetan erantzunak biltzeko.

Beste zenbait proiektu ere martxa ona hartu dute. Bertako nekazarien artean etnografiari buruzko inkesta egin nahi da, eta bada proposamen bat inguruko landare eta belarren inbentarioa egiteko. Horrekin batera, herri guztietan dauden hilarriak zenbatu eta sailkatu nahi dira.

Harrera ona izan du herritarren artean ekimenak, eta orain baliabide materialen bila ari dira. Mugarrietako Batzordeari eskatu zitzaion dirulaguntza, eta 500.000 pezeta eman du, eta lokala eskatu zaio Ameskoabarren Udalari. Oraindik ez du erantzun.

Aspaldiko Ameskoa gaur egungo Ameskoabarren zen. Ameskoagoienek Arana izena izan zuen XVI. mendera arte, eta arabarren menpe egon zen urteetan.

Gaur egun, hainbat eta hainbat argitalpenetan Ameskoari buruz dagoen informazio guztia biltzen eta txukuntzen ari dira taldeko partaideak, fondo bat egiteko.

Alderdi guztietan badira bertako gauzei baino gehiago kanpoko erreparatzen dietenak; poeta batek zioenez, ordea, badira ere bai «motxila hustuta kanpoko haizeak edan baino nahiago dutenak zamarra ongi lotuta beren ondoko zuhaitzen kozkortzea aztertu». Horiei esker gero eta jende gehiagok estimatzen duen bertako jakinduria jaso ahal izan da, nahiz eta gehienetan biltzailerari herriko plazaren batean omenezko plaka bat izateko soilik balio izan dion. Alderdi guztietan.

Ameskoan, Luciano Lapuente eta Emilio Redondok egin dute lan hori. Urteetan, bertako kultura berreskuratzeko ahalegin aritu dira bi Ameskoarrak, gehienetan bakardadean, ez biltzen ezagutzen edo estimatzen. Beraiek burutu zuten, esate baterako, Jose Miguel Barandiaranen inkesta etnografikoa inguruan. Bakarkako lanak, baina, muga gehiegi ditu, eta egin beharreko lana handiegia omen bakar batendako. Hortik sortu zen Ameskoan bertako gaiak landu eta bere ikerketa bultzatzeko taldea.

Izan ere, ezezaguna baita oso Urbasaren eta Estellerriaren bitartean dagoen inguru hau. Bi zartitan banatzen da, administratiboki behintzat. Ameskoagoien daude Aranaratxe, Eulate eta Larraonako udalak, eta Ameskoabarrenen Artatza, Bakedano, Barindano, Ekala, Gollano, San Martin, Urta eta Zudairi, denak

«Ezin da zinematik bizi»

A. BARANDIARAN / IRUÑEA

'Hotel Oasis' laburmetraia puri-purian dago. Alcalá de Henaresko (Madril), Granadako eta Bilboko zinemaldietan sariak jaso ondoren, Canal Plus telebista kate pribatua ari da emititzen, eta kritika onak besterik ez du jaso. Juan Calvo tuterarraren lehen lan garrantzitsua izan da, eta emaitzak ezin hobekak. Hala ere, horrek zinematik bizitzeko ate guztiak ez dizkiola zabalduko dio Madrildik.

zuelako. Pelikulak egiteko beka zen, azken finean. Baina Estatu Batuetako esperientzia ez da hori bakarrik izan, jakina. Laburmetraia berdin-berdin egingo nukeen hemen, baina han egokitu zitzaidan.

EGUNKARIA.— Bekak sortu al zizun presioaren bat?

CALVO.— Beka ematen dizutenean, bada 'akordio' bat, eta zuk nolabait itzuli egin behar diezu eman dizutena. Nik egin nuen beraiekin bideoaren aurkezpena, eta zerbait gehiago egin nezakeen, baina ez dut

zenuen laburmetraiairean aurkezpenean. Zer da han gehien harritu zaituena?

CALVO.— Dena da pakete bat: bizitzeko era, zinema egiteko era, jateko era... eta Kalifornian batez ere, handinahi izugarria dago, baita hirietan bertan ere. Beraz, filmaketak ere handinahiaz egiten dira, denetarik erabiltzen delako. Adibidez, nik nahi nuen hamar pertsona erabili filmaketarako, baina hirurogei ginen. Ez dago modurik gauzak beste modu batez egiteko. Orain Madrilen

dos taldearen bideoa grabatu duzu dagoeneko. Zer moduko izan da esperientzia?

CALVO.— Ez dut lortu nahi nuen guztia, arlo berria delako, Madrilen egiten dudana lehen-dabiziko gauza delako eta abar. Ez da, gainera, zuzen-zuzen lan duan jeneroa, baina oso pozik gelditu naiz. Desberdin samarra da.

EGUNKARIA.— Beti aipatzen da bideoklipen zailtasuna: abeslariak ez direla aktoreak. Nola konpondu duzu hori?

CALVO.— Estutu egin behar da jendea, denak desberdinak direlako. Aurora lasai, aske ibiltzen da, bere irudia oso ongi ezagutzen duelako, baina Puntxes bateria joleak, kasu, bate-



Juan Calvo, bere laburmetraia Iruñean aurkeztu zuenean.

OSKAR MONTERO

EGUNKARIA.— Laburmetraia hau Estatu Batuetan eman dituzun hiru urteetako esperientziaren ondorioa da. Baina hau da egonaldi horren emaitza bakarra?

JUAN CALVO.— Nafarroako Gobernuaren beka jaso nuen, nik banituen dagoeneko laburmetraia asko eginga, eta munduko ikastaro guztietan egona nintzen. Ez nuen ez bata ez bestea errepikatu nahi. Laburmetraia gehiago egiteko dirulaguntzak lortu behar nituen —nahiko zaila— eta nik ez nuen dirurik. Beraz, proiektu bat aurkeztu nion Gobernuari hiru urterako, hain zuzen Los Angelesen hiru urtez egoteko. Ez zuen zerikusirik ordura arte eginga nuenarekin. kutsu akademikorik ez

inoiz inolako presio berezirik izan. Gauzak niretzat egiten ditut eta ez beraientzat. Proiektua aurkeztu nuen, gustatu zitzaien eta dirua eman zidaten. Gero ni gauza naiz nahi dudana egiteko.

EGUNKARIA.— Harritu zaitu laburmetraiak izan duen harrierak?

CALVO.— Asko, eta ezustean harrapatu nau. Ez nuen jaialdietara bidaltzeko inolako asmorik, eta bat-batean ongi ateratzen zait, bidali behar izan dut, eta gero ezin da hori geldiarazi. Ez nuen inolako esperientziarik arlo honetan, baina ikasten ari naiz, ziztu bizian.

EGUNKARIA.— Estatu Batuetan zinemaren mundua berezia da oso, eta hil edo biziko ebakuntza baten traza zuela esan

nago, eta lan egiteko modua erabat desberdina da. Ez dago han bezainbateko urduritasuna, baina baditu bere desabantailak: askoz ere erruralagoa da, eta antolaketa txikiagoa da. Bartzelonan, kasu, antza handiagoa dute Estatu Batuetako lan egiteko moduarekin.

EGUNKARIA.— Espainiatik joan berri dira batzuk Ameriketara, jautzia egitera —Trueba zuzendaria, Banderas aktorea—. Zer iruditzen zaizu hara joan behar —«zerbait egin nahi baduzu»— hori?

CALVO.— Ni ez nago ados. Nik ez nuke inoiz amerikar baten bizitza egingo, ez nintzateke saiaturiko gauza guztien gainetik eremu itxi horretan sartzen.

EGUNKARIA.— Tahures Zur-


ria jo nahi du, besterik ez. Eta nire bideoak aktoreak eskatzen zituen, istorio bat zelako baiña, tira, ongi ateratzen da.

EGUNKARIA.— Oso denbora gutxitan izan duzun arrakasta honekin gertuago ikusten duzu zinematik bizitzeko ametsa?

CALVO.— Berdin dio. Azken finean, barne egoera bat da. Adibidez, laburmetraia lagunei erakusteko izango zela uste nuen, eta bat-batean sariak eta irabazi ditut. Baina orain, akaso, dena oso garbi dudanean, ez dut ezertxo ere egiten. Zuzendari izanik ezin da zinematik bizi: bizitzeko bideoklipak, publizitatea egin behar da, eta hori onartuta daukat. Gainera, zorte handia izan dut, heldu berria izanik proiektuak ditudalako esku artean.

Juan Calvo

ZINEMAGILEA



«Kalifornian egin nuen filmaketarako hamar lagun nahi nituen, eta azkenean hirurogei ginen. Han ez dago gauzak egiteko beste modurik».

SOSLATA

Oinez-erako bideoa

Madrilera joan da Juan Calvo, bertan gertutik jarraitzeko ekoizle eta zinema-munduarekin harremanetan, baina ez du, inola ere ez, Nafarroarekin harremana hautsi. Duela gutxi jaso du Tuteran ospatuko den Nafarroa Oinez-erako bideoa egiteko eskaintza, «asko interesatzen zaidan proiektua», bere hitzetan, eta Tahures Zurdos talde nafarraren bideoklipa grabatu berri du. Hain zuzen ere, atzo ziren sartzekoak grabazio digitala egiteko aretoan, eta gaur bukatuta egongo da lana, EMI disketearekin emateko prest. Ondoren, aurkezpen ofiziala egingo da Madrilen, diskoteka batean.

NOSKI JATOR

© Zaldi Erda

